

IRAKURKETA PROPOSAMENAK


HAUR LITERATUA:



Tituloa: Max eta Superheroiak

Idazlea: Rocio Bonilla


Max superheroi guztiek liluratzen dute, baina badu bat bereziki kuttun. Egia esan, emakume superheroia da: Megapower! Ausarta da, ultraikusmena dauka, indar itzela ... Baina onena da Megapower oso ezberdina dela beste superheroi guztien aldean, eta Maxek oso ondo daki zergatik.



Tituloa : Basajaun

Idazlea : Bakarne Atxukarro , Irudigilea: Asun Egurza

Duela urte asko, jentil erraldoi bat bizi zen gure mendietan. Mendiak eta artaldea zaintzen zituen eta ogia egiten ere bazekien . Herrian aldiz, inork ez zekien ogia egiten. Martin Txikik bere burua eskaini zuen Basajaunen etxera joan, ogiaren errezeta lortzeko



Tituloa : Vercingetorixen alaba

Goscinnik eta Uderzok aurkeztuta

Albert Uderzo Asterixen marrazkilariak, atzo hil zen eta Vercingetorixen alaba, iaz argitaratutakoa, izango da Uderzoren begiek ikusiko duten azken atala.



Tituloa : Mortina eta misterio aintzirako oporrak

Idazlea eta marrazkilaria: Barbara Cantini

Mortina neskatoa da, baina ez besteak bezalakoa: neska zombia da eta bere adineko lagunak izatea nahiko luke ... Mortinaren abenturekin lau liburu duen bilduma bat osatu dute barrez lehertzeko modukoa.

GAZTE LITERATURA


Arthur Conan Doyle
BASKERVILLETARREN
EHIZA-TXAKURRA



Tituloa : Baskervilletarren Ehiza-Txakura

Idazlea : Arthur Conan Doyle

Arthur Conan Doylearen hirugarren nobela da. Sherlock Holmes du protagonista. Bertan txakur izugarri batek egin omen den hilketa bat argitu beharko du. Sir Charles Baskerville noblea Devon konderriko mortu bakartian daukan egoitzan hilda aurkitu dutenean, haren lagun Mortimer doktoreak Sherlock Holmesi kasua argitzeko laguntza eskatu dio. Gazteentzako klasiko entretenigarria.




Tituloa: Kenavo, zaku bete urre!

Idazlea: Iñigo Ibarra

Bertso zahar batzuen hariari tira eginez, gazte batzuk ezustekoz beteriko abentura dibertigarri batean murgilduko dira. Pirata baten altxorra izanen dute jo-muga.

HELDUAK:



Tituloa: Las mujeres de Winchester

Idazlea: Tracy Chevalier (idazle honen beste liburu batzuk eliburutegian topatuko duzu)


Violet Speedwell gaztea emakume ezkongabe gisa bizitzera bideratua dirudi ezinbestean. Gerra Handiak bere senargiari kendu dio, soldaduekin ezkontzeko aukera alde egiten ikusi duten beste emakume batzuei bezala. Irteera bakarra du: familiaren etxea uzteko adina aurrezte eta bere kabuz ezartzea.



Tituloa : Miñan

Idazleak: Amets Arzallus Antia, Ibrahima Balde

Ibrahima kamioi batean zebilen aprendiz Ginean, egun batean amak deitu zuen arte: anaia txikia falta zen etxean. Eta haren bila abiatu zen. Basamortua gurutzatu; pasatzaile, polizia, bahitzaileekin topo egin; egarria, gosea, mina ezagutu. Afrikatik Europarako bidea.



Tituloa: La deshonra de Sarah Ikker

Idazlea: Yasmina Khadra (idazle honen beste liburu batzuk eliburutegian topatuko duzu)

Driss Ikker tenientea bere bizitzako unerik onenean dago. Senar-emazte zoriotsuak ditu Sarahrekin, Marokoko poliziaren goi-kargudun baten alabarekin; eroso baino hobeto bizi da, eta arazorik gabeko patua eman diote Tangerren, bere aitagarrebaren konfiantzazko gizonetako baten aginduetara. Baina, egun batean, dena behera etorriko zaio.